


Aretxagazeta



ANDRAMAIXAK03

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ate irristagarriak



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



2003 · 2004

Matrikula-epea irailaren 2tik 26ra

ingelese | frantsesa | alemana


maila eta adin guztiak | eskolak goizez eta arratsaldez

b **berbetan**
HIZKUNTZA ESKOLA

belorrieta 4
20550 aretxabaleta
tel./faxes:
943 79 00 69
bulego ordutegia:
16:00 · 19:00

ARETXAGAZETA


ATREBENTZIAEZPADA/ Zela juen die aurtengo Andramaixak? Ze baloraziño egingo zeuke?



JOSE SAN MIGUEL
Pilota taldeko kidie



ANABEL DIEZ
Kulturako laguntzaillie




GARIKOITZ ITURBE
Txosna batzordeko kidie



IRAIA AGINAGALDE
'Earra patatie' kuadrillakue



ANTONIO GUIADO
Tabernarixe



PELI BELTRAN DE HEREDIA
G. Segurantzako zinegotzixe

Ondo. Herriko pilotarixen partiduetara jente asko etorri zan eta giro politte sortu euen. Profesionalen partiduek be jentez gaiñezka egon zien, eta ikuskizun politte eskeiñi euskuen.

Ondo. Antzerkixetan, profesionalen pilota partiduetan, herri bazkarixen... herriitar askok parte hartu euen. Antzerkixe ikusteko arazuek euki geuen, baiñe leku egokirik ez dau-eta...

Orokorrien ez da jente askorik egon, eta geuk be igerrigutzen. Txosnetan kontzerturen bat egotie igerrigeuen faltan; bestela, geuk antolatuteko ekintzetan oso giro ona euki geuen.

Geure kuadrillan edarto pasau geuen jaixek, baiñe gabetan gaztiendako zerbait falta izen zala uste dot. Azkenengo egunien inoix baiño giro hobie egon zan kalien atsalde partien.

Oso jente gutxi ibilli zan, igez baiño gutxiau. Jai pobriek izen ziela pentsau jaten. Plazie obratan egotiek eragiñe eukiko euen iguel, baiñe ikusteko gutxi egon zala uste dot.

Ez zan aparteko arazorik sortu eta orokorrien ondo fan zien. Beti dauz zuzendu biherreko kontutxuek, baiñe jente asko be ez zan ibilli eta jai lasaixek izen zien, bai egunez bai gabez.

ANDRAMAIXETAKO ONENA



TXALOAK ELVI BENTRILOKUA Euskaraz egiten duen bentrilokua da Elvi, Jose Luis Morenori inolako inbidiarik izan behar ez diona. Hiru panpina ekarri zituen berarekin, baina ikusleekin jolas egiten ere jakin zuen. Ume zein nagusien atenzioa lortu zuen herri bazkariaren ostean, eta giro polita sortu zuen plazan. /M.A.

ANDRAMAIXETAKO DATUAK

50

**KILO ARROZ ERABILI ZUTEN
500 LAGUNENDAKO
PAELLA EGITEKO**

Horrekin batera 65 kilo oilasko eta 18 litro olio erabili zituzten; saiheskia, ganbak, langostinoak eta barazkiak ere bazituen paellak. Herriarrek oso gustura jan zuten, eta ez zen ezer geratu.

6

**KIDE JOAN ZIREN UDALBATZATIK
MEZA NAGUSIRA**

Andramari egunean udalbatzak meza nagusira joateko ohitura dauka. Aurten alkateak eta bost zinegotzik hartu dute parte.

ANDRAMAIXETAKO TXARRENA



TXISTUAK PAELLA ETXERA Sarritan debaldekoa ez dakigu balorazten, eta horixe gertatzen zaigu Andramaixetako paellarekin. Herriar guztiendako egiten dute, nahiz eta bertara agertzen diren batzuek urte osoan ez parte hartu herriko ekintzetan; baina platera hartu eta etxera eroatea gehiegitxo da gero! /M.A.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



San Migel jatetxea

Apotzaga auzoa ESKORIATZA 943 71 48 71

- Ostiraletan menu bereziak
- Asteburuetan, karta eta plater konbinatuak

Lasaitasuna eta giro polita izan ziren nagusi jaietan

Urruti geratu dira Andramaixak; asko, gainera, etorri ere ez ziren egin. Hala ere, inoiz ez da berandu jaiei gainbegiratu egin eta orduan egindakoak gogoratzeko.



Ikurrinaren agurrean protesta oihu ugari entzun ziren, eta *No apartheid* zioten kartelak erakutsi zituzten hainbat herritarrek.

Jai lasaiak bizi izan zituzten opor lekutik bueltan jaietara etortzea erabaki zutenek. Andramari bezperan, ikurrinari agurra egiterakoan, *No apartheid* zioten kartelekin agertu zen taldetxo bat, eta txistuak bota zizkioten alkateari. Gainera, koan ez zen istilurik izan.

ANTZERKIAK ETA MUSIKA

Jai batzordeak antzerkien aldeko apustua egin du aurten. Ume zein nagusiendako antzerkiak egon ziren. Hala ere, herritar guztiak ez ziren pozik geratu; izan ere, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzezlanak ikusi barik geratu ziren asko, leku faltaren erruz. Musika gura beste egon zen: Sopolako banda, boleroak gogora ekarri zizkigun taldea, txaranga eta Los Cinco Bilbainos taldea. Euripean egon zen jendea bilbotarrei begira; gustura egon ere.



ARMENDIA ETA IRURE, TXAPELDUNAK Mus Txapelketak 42 bikote hurreratu zituen Herriko plazara. Jon Armendia eta Aitor Irure izan ziren txapeldunak, Felipe Hernández eta Manolo Urtubiri irabazita. Kanporaketan bi bider 2-0 galtzen joan eta gero, emaitzei buelta ematea lortu zuten txapeldunek. Ez zuten gero zorte makala izan!



BEZPERAKO KALEJIRA Leizarra Musika Eskolako trikitilariak lagunduta atera ziren buruhandiak eta erraldoiak Andramari bezperan. Arineketan bazekitela erakutsi zuten buruhandiek, baita jotzen ere; batzuei, ostera, burua bere lekuan eramatea ahaztu zitzaizen. Hala eta guztiz, umek eta gaztetxoek ederto pasatu zuten.



Barruko eta kanpoko lorategiak zaindu eta sortzen ditugu

Ureztatze-sistema automatikoak instalatzen ditugu

Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa ARETXABALETA
Telefonoa eta faxa: 943 79 78 45 eta 616 96 57 98

OPEL

Sarritan ingurunera egokitu behar izaten duzu.
Horregatik da hain atsegina ingurunea zuri egokitzea.

OPEL MERIVA

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA
Tel.: 943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20





Xabier Sarasuak eroan zuen Aretxabaletako bandera meza nagusira, hura zen-eta udalbatzako kide gazteena.



Hasieran beldurtuta egon ziren, baina behin gainean eserita gustura ibili ziren gaztetxoak zezenarekin.



ANTZERKI UGARI Bezperan izan ezik, gainerako egun guztietan ere egon ziren, umendako zein nagusiendako. Herritarrek oso gustura ikusi zituzten, eta horietako batzuetan parte hartzea egokitu zitzairen. Hala eta guztiz, haserrealdiak ere egon ziren; izan ere, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* ikustera joan ziren askok ez zuten eserlekurik topatu. Iturri gorri frontoian izan zen, eta berehala lepo bete zen; horrenbestez, askok alde egin behar izan zuten. Antzerkian egon zirenek, berriz, esan zuten ez zutela ondo entzun.



HERRIKO PILOTARI GAZTEAK Ez dira profesionalak, asko ez dira amateur mailara ere iritsiko, baina orain, behintzat, eurak dira herriko pilotariak. Gogoz ibili ziren guztiak, eta norgehiagoka politak ikusi zituzten Iturri gorri frontoira hurreratutako herritarrek. Egindako lanaren ostean guztiak jaso zituzten sariak. Gero, Jose San Migel entrenatzailearekin batera atera gura izan zuten erretratua, hark makinatxo bat ahalgin egiten du-eta gaztetxoei pilotan zelan jokatu erakusteko.



Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA

Solarium bertikala

Ile-luzatzeak

Estetika zerbitzuak:

manikura,

pedikura,

aurpegiko azala garbitzea....



Haizea taberna


Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

Gustoko giroa





Txaranga lagun zutela buruhandi eta erraldoiek kalejira polita egin zuten, baita giro ezin hobea sortu ere.



Bigantxaren aurrean ibiltzera gutxi ausartu ziren; hesi osteko ikusleak, berriz, asko.




KOADRILEN EGUNA Giro ezin hobea sortzen da Andramari hirugarrenean koadrilekin. Bostehun lagun inguru elkartu ziren Herriko Plazan. Paella jan zuten; baita dena jan ere bertan batutakoek. Eta bazkalostea Elvi bentrilokuoak girotu zuen. Barreari ezin eutsi egon ziren ume zein nagusi Elviren panpina xelebreekin.

Errekabarren merkataritza etxea.

Guztia bertan. Guztia Errekabarren kalean.




MARI KARMEN
ZAPATA-KONPONKETA DENDA
943 79 59 85



IRUDI
ILE APAINDEGIA
943 79 80 90



LEINTZ-ROSI
MERTZERIA
943 79 78 63




ERREKABARREN
FRUTATEGIA
943 79 96 43



Gorputz lan taldeak

Yoga
Chi-kung
Bioenergetika



Psikoterapia

Autoestimua eta harremanak

Monografikoak:

- Balioen eta pertsonalitatearen tailerra
- Galeren eta doluen talde terapeutikoak

Sadhana yoga eta psikoterapia zentroa
Santa Kurtz 24 Aretxabaleta Tel.: 616 96 57 95



Aretxabaleta okindegia

*Basaben eta Loramendin
gertu eta fin!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19



*Jar zaitez profesional
espezializatuen esku.*

Zure osasuna gure ardura da.

ERREHABILITAZIO ETA MASAJE
ZENTRUA



ZERBITZUAK:

- ERREHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKO ETA KIROL MASAJEA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA
- ELEKTROTERRAPIA - ULTRASOINUAK
- DRENAJE LINFATIKOA ESKUZ
- GIHAR INDARTZEA
- PODOLOGIA



Partikularrekin eta seguru
etxeekin lan egiten dugu:
(Lagun Aro, Adeslas, Mapfre,
etab.)

Lasai


Mirian Manteca
MASAJISTA

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta egokitzean diplomaturia

ZERBITZUAK

- Osteopatia:
Kraniala
Estrukturala
Funtzionala
- Lotura muskularrak

Aurrez lekua eskatzeko:
943 77 04 34



Aretz

taberna



- .Gosariak
- .Pintxoak
- .Plater konbinatuak
- .Otartekoak
- .Pizzak
- .Hanburgesak
- .Sandwichak
- .Oilasko erreak
- .Kazuelatxoak

ORDUTEGIA:
Astelohenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko irailaren 5a / 135. zenbakia



ANDRAMAIXAK03



Ondo pasau Andramaixak!

Gure Ametsa

Ezkontzak
Jaunartzeak
Enpresa bazkariak
Euskal janari tradizionala

Tel. eta faxa: 943 71 49 52
LEINTZ GATZAGA

ALKATEARENAGURRA/ Joxerra Perez

Berriz ere hurbildu jaku Andramaixak, beraz ohiko bizimodua ahaztu eta egun batzuetaz jai-giroan murgildu gaitezen. Aurten, berezitasun batzuk baditugu, Udaletxeko ordezkarien gehiengoa berritu egin da, eta ziur nago denon artean Gatzaga aurrerantz eramango dugula.

Hau dela eta, agur hau erabiliko dut eskerrik beroenak emateko aurreko ordezkariari egin duten lanarengatik eta herritarroi gudan konfiantza jarri duzuelako. Oraingo ordezkariari, berriz, animo guztiak aurrera egiteko.

Gehio luzatu gabe, ondo pasau Andramaixak. Agur bero bat.



JAIETAKO EGITARAUA

Egubakoitza, 5

- 18:00 Raflen ezkila emanaldia. Etxafuego, bonba japoniar eta herriko trikitilariekin jaien hasiera
- 19:00 Dorletako santutegian NOBENA
- 19:30 Poteoa, herriko trikitilariak alaituta
- 23:30 Rock kontzertua:
 - Never Surrender
 - Sakre
 - Drakes
 - Totemkin

Zapatua, 6

- 11:00 Bonba japoniarrak
- 11:30 Ume jolasak Gorritirekin
- 12:00 Poteoa Arrasateko gaitariak alaituta
- 14:30 Herri bazkaria, Gatzagako sukaldari famatuek prestatuta
- 16:00 Mus Txapelketa
- 17:00 Umeendako gaztelu puzgarriak
- 19:00 Dorletako santutegian NOBENA
- 19:30 Gatzagako buruhandiak eta Arrasateko kilikiak kalejira

- Arrasateko gaitariekin
- 20:00 Poteoa Arrasateko gaitariak alaituta
- 00:00 Dantzaldia TRAKETZ taldearekin
- 04:00 Kulero, tanga eta galtzontzilo lasterketa

Domeka 7

- 09:30 Txirrindulari lasterketaren hasiera, Mendiko Lehen Kriteriuma
- 12:00 AKELARRE txarangarekin kalejira



JAI GIRORIK EZ DA FALTAKO!

- 13:00 Mendiko Lehen Kriteriumaren sari banaketa
- 13:30 Poteoa AKELARRE txarangak alaituta
- 17:00 Pilota partiduak:
 1. partidua: Pilota eskolako mutikoak
 2. partidua: Zabala-Mendia Muruamendaraz-Fuertes
- 19:00 Dorletako santutegian NOBENA Eskoriatzako Koralarrekin. Gero, gazta eta ogia egongo dira
- 22:00 Dantzaldia KAIXO taldearekin

Astelehena 8

- 11:30 Etxafuegoekin eta herriko trikitilariekin Otxandiokoei ongietorria
- 12:30 MEZA NAGUSIA Koralarrekin
- 13:30 Bertso saioa Sebastian LIZASO eta Andoni EGAÑAREkin
- 17:00 ERIZ MAGOAREN saio magikoa
- 19:00 Dantzaldia TXINPARTA taldearekin



Leintz Gatzagako Udalak Andramaixa zorientsuak opa dizkizue gatzagar guztioi.



LEINTZ GATZAGAKO UDALA

“Andramaixa jaietan gogotik parte hartu eta ondo pasatzeko esango nieke gatzagarrei”

AINTZANE GARDOKI

Jon hasiberria da jaiak eta bestelakoak antolatzen. Ekaina ezkeroko kultura ardura duna da, eta ordutik hona makinatxo bat lan egin ditu Andramaixak antolatzeko.

Zer moduz hartu duzu kargu berria?

Ez da erraza izan, ez. Ekainaren 14an udalbatza osatu genuenetik hona ekintza ugari egitea egokitu zaiagu. San Juan bezpera izan zen lehenengo antolatu genuen ekitaldia, San Martin festa bigarrena, eta segituan hasi ginen buru-belarri Andramaixak antolatzen.

Herri txiki bateko jaiak prestatzea zaila da?

Ez da erraza, ez! Gure kasuan, gainera, gauza hauek berriak izateaz gain, oso denbora laburra izan dugu jaiak antolatzeko. Ia ia hutsetik hasi behar izan dugu aurtengo jaietako egitaraua prestatzen.

Jaiak antolatzeko herriarren laguntza eska-


tu zenuten. Zer-nolako erantzuna jaso zenuten?

Ezin hobeia izan dela esan behar dut. Ez genuen uste horrenbeste herritarrek parte hartuko zutenik egin genituen bi batzarretan. Ideia ugari ekarri zituzten herritarrek. Baina ekitaldiak antolatzeko orduan, horren denbora laburra izanda, gura genituen ekintzak edo taldeak ekartzea ezinezkoa izan da. Denbora laburra eduki arren, hiru egitarau egin genituen uztailean, baina batek baietza eman orduko beste batek ezetza erantzuten zigun; hurrengoan beste talde batek ezin etorria adierazten zigun... Ez da erraza izan.

Zein da jaiak antolatzekoan izan duzun helburua?

Herritar guztiendako, ume, gazte zein nagusiendako jai onak egitea. Dena dela, datorren urtean, garaiz ibili eta eskarmentu handiagoa izango dugunez, jai hobeak egiteko gauza izango garela uste dut.

Badirudi ez zarela oso gustura gelditu antolatu duzuenarekin.



Ez da hori kontua, baina, beharbada, denbora luzeago eta gai honetan esperientzia handiagoa izango bagenu, bestelako ekitaldi batzuk sartzen ausartuko gineteke. Dena dela, esan

dudan moduan, hurrengoan hobeto moldatzea espero dut.

Aurtengo egitarauaren barruan zer azpimarratuko zenuke?

Domekan egingo den 25. Gatzagako Txirrindulari

“Oso denbora laburra izan dugu jaiak antolatzeko”

“Guztiondako jaiak egitea izan dugu helburu”

“Domekan egingo den 25. lasterketa oso bestelakoa da”

“Marindarrek hobe dute okaranak batu, bestela...”

Lasterketa, duda barik. Lasterketak jende asko ekarriko duelakoan nago. Horretan lan handia egin dugu azkeneko hilabeteotan. Domeka eguerdian, lasterketa dela eta, ez da mezarik izango

Dorletan. Bederatziurrena domekan bertan amaituko denez, iluntzean, 19:00etan, izango da meza. Bestela, ez dago nobedade handirik. Egubakoitzean, ohikoa den moduan, Rafleren ezquila emanaldiarekin emango zaie hasiera jaiari; egubakoitz gaua gazteei eman gura izan diegu. Inguruko lau rock talde etorriko dira. Zapatuan herri bazkariak gain, Umeen Eguna izango da; domekan, lasterketa; eta astelehenean, Amabirjinaren eguna.

Astelehenean, ohitura jarraituz, Otxandioko herritarrek ez dute hutsik egingo.

Merezi duten ongietorria egingo diegu aurten ere. Giro polita jartzen dute otxandiarrek. Hori bai, marindarrek hobe dute arbolatik okaranak batu, bestela...

Zer esan gura diezu herritarrei?

Andramaixetan gogotik parte hartu eta ondo-ondo pasatzeko esango nieke gatzagar guztiei. Gaizki eginda-koak barkatu eta ondo egingandakoaz disfrutatu dezatela.

JAKIÖN

Deba Garaiko Baserriko Barazki eta Fruta Kontserbak



ONDO PASA JAIXAK!

JAKION S.L. • San Migel plaza 4 etxabea. • 20530 Leintz Gatzaga
Tel.: 943 71 46 86 • Faxe: 943 71 46 21



ELKARRIZKETA ALBERTO ALTUBE DORLETA TXIRRINDULARI BATZORDEKO KOORDINATZAILEA

“Herriaren alde ari gara lanean, eta herria ezagutzera emateko beharrezkoa da auzolana egitea”

AINTZANE GARDOKI

Txirrindularitzari bultzada eman guran, lanari ekin zion herriko koadrila batek urtarrean. 25. lasterketa eta gero-ko erronka: Txirrindularitza Museoa egitea.

Nondik nora sortu zen Dorleta Txirrindulari batzordea?

Joxerra Agirreurretak behin eta berrero esaten zidan lasterketak 25. urte bete behar dituela eta zerbait berezia egin behar genuela. Txirrindularitza oso gogoko dugu biok, eta horren hari-za zerbait egin guran herri batzarrerako deialdia egin genuen.

Eta erantzun ona izan zuen, gainera, deialdiak.

Oso ona. Koadrila ederra elkartu ginen, eta denak lanerako prest zeudenak, gainera. Dozena bat lagun hasi ginen lanean, eta hilabete hauen buruan inork ez du hutsik egin. Jendeak ardurak hartu eta lan egiten du. Hori oso aberasgarria da

edozein proiektu abiarazi eta bultzatzeko. Batzordeko koordinatzaile gisa ezin dut gehiagorik eskatu. Oso pozik nago lantaldearekin.

Txirrindularitza indartzea du helburu batzordeak.

Horrela da. Gatzagak beti izan du lotura handia txirrindularitzarekin. Baina azkeneko urteotan giro horrek behera egin du nabarmen. 25. urteurrena aitzakia hartuta lanari ekin diogu.

Hainbat ekitaldi antolatu dituzuen arren, irailaren 7an egingo den lasterketa da ekintza garrantzitsuenak?

Antolatu ditugun ekitaldiak 25. lasterketaren apaingarriak izango dira. Martxoan zikloturistei ongietorria egin genien; urri-rako, berriz, mendiko bizikleta lasterketa eta txirrindulari profesionalekin hitzaldiak egingo ditugu, besteak beste. Horri guztiori ez diogu indarrak kendu gura, baina egia da egun handia domekako lasterketa izango dela. Sekulako ilusioarekin gaude, eta zerbait handia izango den dudarik



ez dugu, aurtengo lasterketa guztiz berezia da eta.

Zeintzuk dira 25. lasterketak dituen berritasunak?

133 kilometro izango ditu lasterketak; Gipuzkoan, Ara-

ban eta Bizkaian sartuko dira txirrindulariak. Eta sariak inoiz ez bezalakoak izango dira: 7.000 euro eman- go dira saritan. Tarteko hiru helmuga egongo dira, eta helmuga bera izugarria izan-

“Jendeak ardurak hartu eta lan egiten du”

“Domekan 7.000 euro emango dira saritan”

“Gazteei parte hartzeko eskatuko nieke”

“Abian da Txirrindularitzaren gaineko museoa Gatzagan”

go delakoan gaude; izan ere, txirrindulari lasterketa handietan egoten den itxura berbera izango du domekan Gatzagako helmugak.

Zenbat lagun ibiliko zarete guztia antolatzen?

50-60 lagunena laguntza ezinbestekoa izango da dena espero bezala aterada dadin. Ibilbidean gurutze asko daude, autoak eta aparkalekuak antolatu behar dira... Gauza asko egongo da egiteko.

Zer eskatu gura diezu herritarrei?

Eskatu aurretik esangura nieke herriaren alde ari garela lanean, Gatzaga bera eta txirrindularien zaindaria ezagutzera eman guran. Eta hori esanda, domekako batzordeak dituen premiei erantzuna ematea eskatuko nieke. Auzolana eskatuko nuke domekarako. Eta gazteei, parte har dezatela proiektu honetan; bestela, pena litzateke guztia galtzea.

Eta hor amaituko da batzordearen lana?

Ez, horixe! Indartsu gauden bitartean jarraituko dugu. Datorren urtean ez ditugu aurtengo erraztasun berberak izango, baina aha- leginduko gara herriaren eta Dorletaren izenak munduan ezagutzera ematen. Gainera, dagoeneko finkatu dugu hurrengo erronka: txirrindularitzaren gaineko museoa abian da Gatzagan.



UR kristaldegia

Martoko 1-3 943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikoak

Ondo ibili Andramaixetan!



Naturarekin bat eginik!



- Jatetxea
- 7 txabola guztiz prestatuta
- Urte osoan zabalik



Ondo Pasau Andramaixak!

Informazioa eta erreserbak: 943 71 51 64 eta 617 78 74 32 LEINTZ GATZAGA

AMABIRJINA

Dorletako Ama, mendez mende zaindu eta babestu gaituen ama

Santiagora zihoazen erromesek eman zuten haren berri, eta Euskal Herritik kanpo ere oso ezaguna izan zen

MIRARI ALTUBE

Gatzagakako santutegian dagoen Dorletako Amak mendez mende izan ditu jarraitzaileak. Gaixo ugari etortzen zen bertara, erromes, Amabirjinari zaintzeko eskatzera.

Askok ez dakiten arren, Leintz bailaran mendez mende zaindu eta babestu gaituen zaindari bikaina daukagu: Dorletako Ama.

GAIXOEN ZAINDARIA

Buruko eta bihotzeko gaixotasunak zaintzeko ahalmena ei du, baita epilepsiak eta nerbioek eragiten dituzten gaitzak ere. Mirariak egiten dituen irudia ei da.

Santiagora zihoazen erromesak izan ziren Amabirjinaren berri eman zuten lehenengoak. XII. mende inguruan izan zen hori. Poliki-poliki aparteko zaindaria zela zabaldu zuten, eta inguru guztietako gaixoak hasi ziren etortzen, erromes. Txiki geratu zen



Oraindik ere Dorletako Amabirjinaren egunean guraso eta aiton-amonek umeak eramaten dituzte Dorletara bedeinkatzera.

Dorletan zegoen ostatua. Dorletako santutegia parrokia izan zen lehenengo, 1331ra arte. Gaur egun dagoen irudia XIII. mendearen bukaera aldera egindakoa da. Amaren eta

Poliki-poliki aparteko zaindaria zela zabaldu zuten, eta inguru guztietako gaixoak hasi ziren etortzen, erromes

semearen arteko goxotasuna dario irudiari, eta Amabirjinaren jarraitzaileengan debozio handia sortu zuen.

1367. urtean Dorletako Ama lapurtzen saiatu ziren


ingelesak, mirariak egiten zituela entzuna zuten-eta. Baina ezin izan zuten; bailarako bizilagunek Aramaio-ko jauntxo baten laguntzarekin ez zieten errotan utzi.

TXIRRINDULARIEN ZAINDARIA
50eko hamarkadan Italiako eta Frantziako txirrindulariek euren zaindariak izendatu zituzten. Hori horrela, Bilbo eta Gasteiz inguruko txirrindularitzazale batzuek Espainiako txirrindularien zaindari Dorletako Ama izendatzea erabaki zuten. Izendapena lortzeko Dorleta Txirrindulari Elkarteak sortu zuten, eta gogor ekin zioten lanari. 1960ko abuztuaren 8an Joan XXIII.a aita santuari egin zioten eskaria, eta 1975eko irailaren 7an Dorletako Ama ofizialki izendatu zuten Estatuko txirrindularien zaindari.

Arlaban gainean dagoen Amabirjinaren irudia 1958ko urriaren 26an jarri zuten. Orduetik hona zenbat txirrindulari pasatu ote da bertatik... Ikusi besterik ez dago bertan egoten diren lore sortak.



Gozatu Andramaixak!




San Migel plaza 1, 3 20530 Leintz Gatzaga
Tel.: 943 71 47 92



ESKORIATZA

Tfno 714345



ERRETEGIA

MENDIOLA

Andramaixetan zatoz geurera

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Mendiola auzoa
943 71 43 45



Irailaren 10ean, eguaztenean, irekiko dituzte Tortolis ludotekako ateak

AMAGOIA LASAGABASTER

Eskoriatzako umeek aurten ere izango dute non jolas egin. Izan ere, datorren eguaztenean, hilaren 10ean, zabalduko dituzte Tortolis ludotekako ateak. Gainera, ikasturteari ongi etorri berezia egiteko Pello Añorga ipuin kontalaria gonbidatu dute ludotekara.

Tortolis ludotekak datorren eguaztenean, hilaren 10ean, emango dio hasiera 2003-2004 ikasturteari. Horretarako, azken urteotan egin duten moduan, ekitaldi berezia antolatu dute. Iaz Oihulari Clown-en ikuskizuna egon zen. Aurten, berriz, Pello Añorga ipuin kontalaria izango du ludoteka irekitzeko ardura. Hala ere, lehen eguna bakarrik ez da izango berezia; Tortoliseko arduradunek ahaleginak egin dituzte aurreneko astea ume guztiendako dibertigarria izan dadin. Hala, su japoniarrak, mozorro festa eta egoitza apaintzeko eskulana saioak antolatu dituzte.

BAZKIDETZAK

Umeek ludoteka gustuko badute, behintzat, urtebeterako bazkide izateko aukera izango dute. Horre-



Aurten ere eskulan ugari egiteko aukera izango dute Tortolis ludotekan bazkide egiten diren gaztetxo eta umeek.

tarako, nahiko izango da bazkide txartela bete eta 28 euro ordaintzea. Bestalde, iaz bazkide egindakoei irailaren 30ean pasatuko zaie banketxetik urteko kuota. Bazkide izateari utzi gura diotene edo informazio zabalagoa

gura dutenek, berriz, irailaren 25a baino lehenago dei dezakete 943 71 49 21 telefono zenbakira. Tortolis ludotekako arduradunek informazio hori guztia aditzera emateko triptikoak banatuko dituzte datozen egunotan.

Tortolis ludoteka 3 eta 12 urte arteko umeendako eta gazteen-dako izango da aurten ere. Eta horiek ludotekako ekintzetan parte hartzeko eta jolastokian dagoen material guztia erabiltzeko eskubidea izango dute.

ARTXIBOA



Elizateetako auzotarrek jaiak ospatu dituzte

Bolibarren eta Apotzagan oraindik auzoko jaiak ospatzeko zain badaude ere, Mendiolan San Juanak, Zarimutzen San Pedroak, Marinen Madalenak eta Gellaon eta Mazmelan Andramaixak ospatu dituzte. Meza nagusiaren ondoren auzotarrendako luntxa izan dute auzo gehienetan. Lehenagoko ohiturei jarraituz, oraindik ere etxe askotan gonbidatuak izaten dituzte. Maringo Romaraten 37 lagun elkartu ziren Madalenak ospatzeko. Argazkian, marindarrak Madalenak ospatzen. /A.G.

LABUR

Erromesaldiak Gatzagara eta Arantzazura

Eskoriatzako Dorleta Amabirjinaren elkarteak bi erromesaldi antolatu ditu. Hilaren 8an, Dorleta Amabirjinaren egunean, Gatzagara joango dira. Hara joateko autobusa 11:00etan aterako da beheko geltokitik. Eta iraileko hirugarren domekan Arantzazura egingo dute erromesaldia.

Zuntz optikoa sartzeko lanak egiten erdialdean

Euskaltel enpresa zuntz optikoa sartzeko hasi da Eskoriatzan. Abuztuan hasi ziren herriko erdialdean lanak egiten. Kanalizazioa egin, eta kablea sartzeko lanak egin dituzte. Zuntz optikoa sartzeko erdialdean hasitako lanak datozen aste eta hilabeteetan herri osora zabalduko ditu Euskaltel-ek.

Xabier Gomez parrokoari agur bazkaria domekan

170 eskoriatzarrek eman dute izena Xabier Gomez parrokoari egingo dioten agur bazkarian parte hartzeko. Hilaren 7an, 12:30ean meza entzuteko elkartuko dira. Juan Mari Uriarte gotzaina eta Jesus Ortiz de Urbina parroko berria izango dira bertan. Gero, elkarrekin bazkalduko dute guztiak.

Etxebizitza berriak egiteko lanak Bolibarrera bidean

Datozen hilabeteotan etxebizitza berriak egiten hasiko dira Elorretako lursailetan, Bolibarrerako bidean; 50 etxebizitza inguru egingo dituzte. Hori dela eta, hasi dira lursailotan behar diren egokitzapen lanak egiten. Azken asteotan lurrez beteriko makinatxo bat kamioikada hustu dituzte bertan.

ALDATZ TABERNA

ESKORIATZA

NAIRA Taberna


Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71



ESTETIKAN
ESPEZIALIZATUTAKO
ZENTRUA

Aranburuzabala 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA

EDURNE



Elektroterapia.



www.forumsport.com

UDAZKENA
NEGUA
2003

Garibai Etorbidea, 2-6 ARRASATE

EURIA, HOTZA, HAIZEA...
BURUAK GELDITZEA ESKATZEN DIZU;
BIHOTZAK, SEGITZEA.

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

J A N T Z I D E N D A




LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ETXE APAINKETA

GRUPO RKUZ 1950-2003

Zure etxea da




Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

